

# Osagaiak teknika ez-suntsizaileen bidez ikuskatzeko/neurtzeko zelula robotikoa.



Piezen kalitate-kontrolerako eta ikuskatze ez-suntsizailerako azterketa egiteko aukera ematen du zelulak. Sistema konfiguratu egin daiteke, ikuskatze eta neurketak egiteko zenbait teknologiaren bidez: ikusmen-kamerak, termografia, teknologia multiespektrala eta lortutako irudiak prozesatzeko askotariko algoritmoak, besteak beste. 2Dko eta 3Dko ikusmen-sistemek, photogrametric stereo ekipamenduak, ikuskatze ez-suntsizaileko ekipamenduek (teknologia multiespektrala, termografia) eta piezaren zenbait konfigurazio eta lan-baldintza simulatzeko azpiegiturak osatzen dute sistema. Ikuskatze-sistemak zenbait funtziotan erabiltzeko konfiguratu daitezke. Zelulak aukera ematen du piezaren gainean zenbait azterketa egiteko: • 2D/3D dimentsio-kontrola, 2Dko eta 3Dko ikusmen-tekniken bidez; • Azaleko akatsak detektatu eta identifikatzea. In-line nahiz off-line ikuskatzeen bideragarritasuna ebaluatzeko aukera ematen du zelulak, bereizmenari, ziklo-denborei eta bestelako parametro batzuei loturiko baldintzak aztertuta; halaber, kalitate-kontrolerako eta piezaren manipulaziorako irtenbideak automatizatzeko aukera ematen du.

## EKIPO ETA OSAGAI GARRANTZITSUENAK

### ▸ 2D/3D ikusmen-sistema konfiguragarria

Gocator kamera, Ranger Sick, photometric stereo IAI ekipamendua, Pulnix ekipamendu multiespektrala, kamera termografikoa

### ▸ Argiztapen-kondizio kontrolatuak ezartzeko armairua, encoder bidez kontrolatutako garraio-zinta

### ▸ Dimentsio-kontrolerako eta akatsak detektatzeko softwarea

### ▸ In-line ikuskapenerako eta % 100 kontrolerako softwarea

### ▸ Robot-beso manipulatzailerak

## APLIKAZIO-EREMUAK

Aplikazio robotizatueterako malgutasuna

Robot bidezko kalitate kontrola



basqueindustry.eus



## AKTIBOAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK

---

### Bideragarritasun teknikoaren azterketa

Bezeroak adierazitako akatsak detektatzeari lotutako mugen bideragarritasunaren azterketa.

---

### Demostrazioa/Gerturatzea

Osagaiak ikuskatzeko/neurtzeko zelula robotizatuaren erakuslea.

---

### Kontzeptu-proba

Ikuskapeneko eta neurketako azken irtenbidearen kontzepzioa baloratzeko konfigurazio posibleen eta lan-zikloen proba azkarrak.

---

### Prestakuntza

Osagaien ikuskapenean/neurketan robotika aplikatzeko entrenamendu praktikoa

---

## IRUDUEN ERAKUNDEA



### FUNDACIÓN TEKNIKER

Harremanetarako pertsona:  
Ander Ansuategi



basqueindustry.eus

